

INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEA SA-N (IZFE, SA) ZAZPI LANPOSTU BETETZEKO HAUTAKETA-PROZESUETARAKO DEIALDIA ETA BALDINTZAK

LEHENENGOA. DEIALDIAREN XEDEA.

Deialdi honen xedea da Informatika Zerbitzuen Foru Elkarte SAn, Gipuzkoako Foru Aldundia % 100 den merkataritza sozietate forala (aurrerantzean Izfe SA), zazpi lanpostu betetzea. Deialdia publikoa eta irekia da, eta OTEIC taldearekin, langileak aukeratzeko enpresaren laguntzarekin, eramango dira aurrera hautaketa-prozesuak, dokumentu honetan jasotako baldintzak eta berdintasun, meritua, gaitasun eta publizitate printzipioak kontuan harturik.

Aldaketa teknologikoaren abiadura eta belaunaldien arteko erreleboaren egungo testuinguruan, beharrezkoa da gure bezeroek herritarrei zerbitzua emateko duten bokazioari erantzuna emateko, eraldaketa- eta estrategia-prozesuei ekitea, arintasun, gardentasun eta irisgarritasunari buruzko konponbideak eskainiz.

Honako hauek dira langile behar premiazkoak eta geroraezinak betetzeko deitutako postuak:

- Data Analytics aholkularia/arkitektoa.
- J2EE arkitektoa.
- Berrikuntza proiektuen kudeatzailea
- Negozio aholkularia
- Konponbide/garapeneko teknikaria
- Bezeroentzako teknikaria.
- GIS konponbideen teknikaria

Lanbide eta antolakuntza proiektu sendoan sartzea planteatzen da, plantilla gaztetzeko planean murgilduta dagoena, informazioaren sistemen eta teknologien sektorean garapen profesionala izateko ahalmen handiarekin, eta familia eta lan bizitza bateratzeko neurri multzo handiarekin.

Eskaintako zazpi lanpostu horien kasuan, plantillan sartzea eskaintzen da, kontratu mugagabearekin.

Ordainsaria honakoa izango da urtean: 45.200 € (Data Analytics aholkulari/arkitektoa, Berrikuntza proiektuen kudeatzailea eta Negozio aholkularia), 41.700 € (J2EE Arkitektoa eta GIS konponbideen teknikaria) eta 33.000 € (Konponbide/garapeneko teknikaria eta Bezeroentzako teknikaria).

Dokumentu honen I. eranskinean jaso da deitutako postuen deskribapen nagusia.

Desgaitasunen bat duten pertsonen artean Konponbide/garapeneko teknikari lanpostua erreserbatzen da, eta, halakotzat hartuta, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuko desgaitasunen bat duten pertsonen eskubideei buruzko Lege Orokorraren testu bateginaren 4. artikuluan definitutakoak izango dira, hala nola, hautaketa-prozesua

gainditzen badute, desgaitasun-maila egiaztatzen badute, eta lanpostuko eginkizunak betetzearekin bateragarritasuna egiaztatzen badute.

Lanpostua hutsik geratzen bada, hautaketa-prozesua gainditu duten gainerako hautagaien artean beteko da.

Hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrendak sozietatean sor litezkeen errelebo beharrei erantzuteko erabili ahal izango dira, baldin eta horiek bat egiten badute deialdi honen xede diren lanpostuekin. Plantillan sartzea eskaintzen da, kontratazio mugagabea egiteko aukerarekin, une bakoitzean aplikatu beharreko legezko xedapenek horretarako aukerarik ematen badute.

Deialdi honen behin betiko emaitzak argitaratzearekin batera, Garapeneko teknikari eta Sistemen teknikariei buruzko aurreko hautaketa-prozesuen ondoriozko langileen zerrendak indargabetuko dira. Era berean, hautaketa-prozesu honetatik ateratako langile onetsien zerrenda indargabetuta geratuko da, etorkizunean egin daitekeen prozesu berri baten behin betiko emaitzak argitaratzearekin batera.

Plantillan sartzea eskaintzen da, kontratazio mugagabea egiteko aukerarekin, une bakoitzean aplikatu beharreko legezko xedapenek horretarako aukerarik ematen badute.

BIGARRENA. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK.

Deialdian onartua izateko eta, hala behar badu, dagokion hautaketa-prozesuan parte hartzeko, honako baldintza baztertzaila hauek bete beharko dira eskariak aurkezteko epea bukatzen denerako (2019ko urriaren 20a):

- a) 16 urte beteak izatea eta nahitaezko erretirorako gehieneko adina ez gainditzea, eskariak aurkezteko epea amaitzen den datan.
- b) Hiritartasuna: Europako Batasuneko kide den Estatu bateko hiritartasuna izatea, edo Europako Batasunak izenpetu eta Espainiako estatuak berretsitako Nazioarteko Itunen arabera, langileen joan-etorri askea aplikatu daitekeen Estatu bateko herritartasuna izatea.

Era berean, Europako Batasuneko Estatu baten herritartasuna dutenen ezkontideek ere hartu ahal izango dute parte, baldin eta zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, eta baita haien eta ezkontideen ondorengoek ere, baldin eta bi ezkontideak zuzenbidearen arabera bananduak ez badaude, 21 urtetik beherako ondorengoak badira edo adin hori baino handiagoa izan arren, haien bizkar bizi direnak badira.

Era berean, aurreko paragrafoetan ez dauden eta legezko bizilekua espainiar estatuan duten atzerriarrek hartu ahal izango dute parte. Aukeratuak suertatzen badira, kontratuak gai duen jarduera egiteko administrazio baimena eduki beharko dute kontratua formalizatu aurretik.

- c) Titulazioa: postu bakoitzari dagokion unibertsitate titulu ofiziala izatea, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak izatea honako alor hauetan:
 - a. Data Analytics aholkularia/arkitektoa: Datuen Zientzia, Matematika, Fisika, Estatistika edo Ingeniaritzako Lizentziatura edo Gradua edo homologagarria.



- b. J2EE arkitektoa: informatika Ingeniaritzako Gradua edo homologagarria (adibidez, ingeniaritzako unibertsitate-titulu ofizial zaharrak, Informatikako Lizentziatura).
- c. Berrikuntza proiektuen kudeatzailea: Ingeniaritza informatikoko Gradua edo beste ingeniaritza edo homologagarri batzuk (adibidez, ingeniaritzako unibertsitate-titulu ofizial zaharrak, Informatikako Lizentziatura).
- d. Negozio aholkularia: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua, Industria Antolakuntzako Ingeniaritza edo Informatika Ingeniaria, edo homologagarria.
- e. Konponbide/garapeneko teknikaria: Ingeniaritza Informatikoan, Industria Ingeniaritzan, Industria Antolakuntzako Ingeniaritzan, Fisikan, Matematikan edo homologagarrian Gradua.
- f. Bezeroentzako teknikaria: Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzako Gradua, Industria Antolakuntzako Ingeniaritza edo homologagarria.
- g. GIS konponbideen teknikaria: Geologia, Ingeniaritza, Matematika, Fisika edo homologagarria.

Atzerriko titulazioen kasuan, haien homologazioa egiaztatuko duen agiria eduki beharko dute.

d) Lan esperientzia hau izatea:

- a. Data Analytics aholkularia/arkitektoa: 3 urteko esperientzia, Big Datan eta Datuen Analitikan azpiegitura teknologikoak eta frameworkak dituzten datu-proiektuetan.
- b. J2EE arkitektoa: 3 urteko esperientzia J2EErekin aplikazioak diseinatzeko eta garatzeko, Spring arkitekturekin.
- c. Berrikuntza proiektuen kudeatzailea: 3 urteko esperientzia berrikuntza-proiektuen kudeaketan.
- d. Negozio aholkularia: 3 urteko esperientzia negozio aholkularitzako proiektuetan.
- e. Konponbide/garapeneko teknikaria: 1 urteko esperientzia web aplikazioak diseinatzeko edo garatzeko.
- f. Bezeroentzako teknikaria: lan esperientzia ez da beharrezkoa.
- g. GIS konponbideen teknikaria: 3 urteko esperientzia GIS softwarea eta aplikazioak garatzeko.

Esperientzia hori egiaztatzeko IV eranskinean erabilgarri dagoen lanbide esperientziari buruzko erantzunkizunezko adierazpenaren eredu bat aurkeztu behar da, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra igorritako bidez laboraren txostenarekin edo kontratuaren amaieraren data eta iraupen osoa egiaztatzen duen beste dokumentu batekin batera. Dokumentu horrekin batera laneko kontratuaren fotokopia aurkeztu daiteke, betiere haren edukiak burututako lana jasotzen badu, edo enpresaren bestelako ziurtagiriren bat, horrek maila profesionala eta burututako funtzioak jasotzen baditu.



- e) Euskara ezagutzaren C1 mailako edo homologagarriaren ziurtagiri ofiziala edo, hala behar badu, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatzenetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak aurreikusitako salbuespenak aplikatzeko ziurtagiria izatea.
- f) Lanpostuak bere dituen lanak egiteko gaitasun funtzionala izatea: dagozkion lanak egiteko eragozpenak sortuko dizkion gaixotasunik edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

Hautagaiek onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea amaitzen den datarako bete behar dituzte baldintza horiek eta betetzen jarraitu lan kontratua sinatu arte, f) atalean adierazitakoa izan ezik, hura mediku zerbitzuak egiaztatu beharko baitu justu kontratazioaren aurretik.

Prozesuaren edozein unetan hautaketa-batzordeak jakiten badu hautagairen batek ez dituela deialdian eskatutako baldintzak betetzen, prozesutik kanpo utziko da, interesdunari entzun ondoren.

HIRUGARRENA. ONARTUA IZATEKO ESKAERA.

Eskaerak III. eranskinean eskuragarri dagoen onartua izateko eskaera ofizialean aurkeztuko dira, behar bezala beteta, honako hauen arabera:

- a) Hautaketa-Prozesuan parte hartu nahi duten pertsonak onartuak izateko eskaera bete beharko dute eta bertan adierazi beharko dute bigarren baldintzan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztela, onartuak izateko eskaera orriak aurkezteko epea amaitzen den datari begira betiere.
- b) Era berean, merituen fasean baloratu beharreko datuak jaso beharko dituzte, nahiz eta prozesuan zehar meritua horiek egiaztatzeko epe espezifiko bat irekiko den, prozesuan jarraitzen duten hautagaiek inprimakian adierazitako merituen egiaztagiria ekartzeko.
- c) Honako dokumentazio hau aurkeztuko da arestian aipaturiko eskaera orri horrekin batera:
- Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, edo identifikazio dokumentu baliokidea.
 - Curriculum Vitae eguneratua.
 - Eskatutako unibertsitate titulu ofizialaren edo fotokopia edo hura lortzeko eskubideak ordainduak dituela egiaztatzen duen agiriaren fotokopia.
 - IV. eranskinean eskuragarri dagoen lan esperientziaren inguruko erantzukizuneko Adierazpenaren Eredua.
 - Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak igorritako bizitza laboralaren txostena edo kontratuaren amaieraren data eta iraupen osoa egiaztatzen duen dokumentua. Dokumentu horri laneko kontratuaren fotokopia erantsi daiteke, betiere burututako lana jasotzen badu haren edukiak, edo enpresaren bestelako ziurtagiriren bat erantsi daiteke, hark maila profesionala eta burututako funtzioak jasotzen baditu.
 - C1 euskara mailaren ziurtagiriaren edo tituluaren fotokopia.

- Hautaketa-prozesuaren garapenean hautagai batek aintzat hartu beharreko desgaitasunen bat badu, inprimakian eskatu beharko du gainerako parte hartzaileekin berdintasun baldintzetan ariketak egiteko behar dituen denbora eta bide egokitzapenak, betiere horrek ez badu probaren edukia indargabetzen, eta ez badu eskatutako gaitasun maila murriztu edo kaltetzen. Hautaketa-batzordeari dagokio eskatutakoa ematearen bidez kotasuna edo ez baloratzea.

Eskatutako dokumentazioaren fotokopia arrunta aurkeztea onartuko da. Hala ere, Izfe SAK, aurkeztutako dokumentazioa/informazioa egiazkoa den egiaztatzeko eskubidea izango du, eta egiazkoa ez den informazioa aurkeztu duten pertsonak hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango ditu automatikoki.

2. fasean eskatuko da jatorrizko dokumentazioa aurkeztea, haiek egiazta daitezten, seigarren baldintzan adierazten den bezala. Une berean merituen balorazioari dagokion dokumentazioa eskatuko da (jatorrizkoa eta fotokopia). Jatorrizkoa eta kopia ez badatoz bat, hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango da hautagaia.

Gaztelania edo euskara ez bestelako edozein hizkuntzatan dagoen dokumentazio oro zinpeko itzultzaileak itzulia aurkeztu behar da, baloratua izan dadin.

d) Aurkezteko lekua edo bidea:

- Aurrez aurre honako helbide honetan: OTEIC Taldea, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Erakina, 1. Solairua - 20018 Donostia.
Aurrez aurre aurkezteko ordutegia 9:00etatik 18:00ak arte izango da, astelehenetik ostiralera.
- Posta bulegoetan, bidalketa ziurtatuaren bidez, aurreko helbidera zuzenduta. Gutun-azal irekian aurkeztuko dira onartuak izateko eskaera orriak, Postako langileek data eta zigilua jarri ahal izateko, aurkezteko epearen barnean. Horrela egiten bada soilik ulertuko da Posta bulegora eraman diren egunean sartu direla eskariak. Onartua izateko eskaera orrian jarri behar dira data eta zigilua.
- Posta elektronikoaren bidez seleccion@oteic.com helbidera, gaiari "CONVOCATORIA IZFE, SA 2019 DEIALDIA" adierazita.

e) Onartuak izateko eskaerak aurkezteko epea 15 egun naturalekoa izango da, deialdi hau prentsan argitaratzen den egunetik aurrera kontatuta, eta zehatz esateko, 2019ko urriaren 6tik 2019ko urriaren 20ra arte, biak barne.

LAUGARRENA. HAUTAGAIK ONARTZEA.

Eskariak aurkezteko epea amaitu ondoren, bederatzigarren baldintzan adierazitako bideetatik argitaratuko da onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda.

Aipaturiko zerrenda horretatik kanpo geratu diren pertsonak 3 laneguneko epea izango dute, argitaratzen den egunaren hurrengotik aurrera kontatuta, kanpoan uzteko arrazoi izan diren okerrak edo ez egiteak zuzentzeko edo egokitzat hartzen dituzten alegazioak planteatzeko. Horretarako, alegazio orri bat egongo da eskuragarri Izfe, SAren web orrian, baita OTEIC Taldearen bulegoetan ere.

Behin-behineko zerrendak behin betiko bilakatuko dira alegaziorik ez bada aurkezten. Alegazioak aurkezten badira, haiek onartu edo gaitzetsi egingo dira, hala badagokio, behin betiko zerrendak onartuko dituen beste ebazpen baten bidez, eta aurrekoaren modu berdinean argitaratuko dira horiek ere.

Behin-behineko zerrendetatik kanpo geratu diren pertsonak, jarritako epean alegazioa aurkeztu dutenak, badaezpada ere azterketetara aurkeztu ahal izango dira, planteatutako alegazioa data horretarako ez bada erabaki.

BOSGARRENA. HAUTAKETA-BATZORDEA.

Prozesu bakoitzerako hautaketa-batzorde bat osatuko da eta kideen izendapenean inpartzialtasunaren eta profesionaltasunaren printzipioak errespetatuko dira.

Ordenamendu juridikoaren arabera, oinarri hauen aplikazioan sortzen diren zalantza guztiak argituko ditu hautaketa-batzordeak, eta beharrezko erabakiak hartuko ditu fase bakoitza behar bezala gara dadin lortzeko, haietan aurreikusi ez diren kasuei begira aintzat hartu behar diren irizpideak zehaztuta. Era berean, fase bakoitzeko baliabideak baliozkotuko ditu eta sortzen diren gorabehera guztiak konponduko ditu.

Hautaketa-batzordeak beharrezko neurriak hartuko ditu azterketa idatzien edukiaren konfidentzialtasuna bermatzeko, eta parte hartzen duten pertsonen nortasuna ezagutu gabe zuzenduko direla ziurtatzeko.

Hautaketa-batzordeak bere lanetarako aholkulari edo enpresa espezializatuak eduki ahal izango ditu egokitzat hartzen dituen azterketetako probak egiteko.

Hautaketa-batzordeko kide bat ezin bada joan, Izfe, SAko Zuzendaritza Nagusiak haren ordezkoa izendatuko du.

SEIGARRENA. HAUTAKETA-PROZESUAREN GARAPENA.

Jarraian, hautaketa-prozesuko fase desberdinak zehazten dira a priori burutzea aurreikusten diren hurrenkeran. Edozein kasutan, hautaketa-batzordeak jarraian izendatzen diren faseak eta probak egiteko hurrenkera aldatu ahal izango du, hainbat fase eta proba egun berean egitea zehaztuz edota fase edo probaren bat kenduz, prozesuaren martxaren arabera.

Segidan zehazten diren fase guztiak baztertzailak izango dira, 3.fasea izan ezik, behar bezala alegatutako eta egiaztatutako merituen balorazioari dagokiona.



Honako fase hauetan banatzen da hautaketa-prozesu bakoitza (II. eranskina):

1. FASEA: Gaitasunen analisia edo/eta ezagutzen analisia, bete beharreko lanpostuarekin loturiko gaitasun probak edota proba teoriko-praktikoak egingo dira.

40 puntu izango ditu gehienez. Data Analytics aholkulari/arkitekto, J2EE Arkitekto, GIS konponideen teknikaria eta Berrikuntza proiektuen kudeatzailearen kasuan puntuazio handiena lortu duten 10 hautagaiak, Negozio aholkularia eta Bezeronetzako teknikarien kasuan puntuazio handiena lortu duten 15 hautagaiak eta Konponbide/Garapeneko teknikoaren kasuan puntuazio handiena lortu duten 30 hautagaiak pasako dira hurrengo fasera. Berdinketa gertatuz gero zabaldu egingo da kasu bakoitzean puntuazio berdina dutenak sartu arte.

2. FASEA: Elkarrizketa/k eta Anlisi pertsonala eta Konpetentziala. 2. fasera pasatzen diren hautagaiei dei egingo zaie elkarrizketa/k edo/eta beste proba pertsonal batzuk, bakarka edo/eta taldeka, egitera joan daitezen, hautagaiak postu bakoitzerako eskatutako profilerako egokiak diren eta beharreko gaitasunak dituzten baloratzeko.

Postu bakoitzaren intentsitatea kontuan hartuta, baloratuko diren dimentsioak eta konpetentziak honako hauek dira, besteak beste:

- Intrapertsonala: autokontrola, konfiantza, segurtasuna, dinamismoa, kontraktasunein aurre egitea.
- Interpertsonala: komunikatzeko eta entzuteko, harremanak izateko, taldean lan egiteko gaitasuna.
- Ingurua: ikuspegia eta aurrea hartzea, bezeroarekiko orientazioa, irekiera, enpresarekin identifikatzea eta konprometitzea.
- Zereginak garatzea: ekimena, emaitzetara bideratutako irizpideak, azterketak eta aukera zehatz eta berritzaileen proposamenak egiteko gaitasuna, erabakiak hartzeko gaitasuna.
- Kudeaketa: lidergoa, pertsonen kudeaketa, planifikazioa eta antolakuntza.

Gehienez 40 punturekin baloratuko da. Gutxienez 20 puntu lortu beharko dira fase hau gainditzeko.

Onartuak izateko eskaera orrian adierazitako datu guztiei dagokien jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko da fase honetan, haiek egiaztatu ahal izateko, baita lan esperientziaren inguruko erantzukizuneko adierazpena ere. Une berean merituen balorazioari dagokion dokumentazioa eskatuko da (jatorrizkoa eta fotokopia), datorren puntuan adierazten den bezala. Jatorrizkoa eta kopia ez badatoz bat, hautaketa-prozesutik kanpo utzi ahal izango da hautagaia.

3. FASEA: Merituen balorazioa. Fase honek, 20 puntu izango ditu gehienez. Dagokion onartua izateko eskaera orriaren bidez eta lan esperientziaren inguruko erantzukizuneko adierazpen ereduaren bidez alegaturiko ondoko merituen hauek baloratuko dira (ikus III. eranskina):

- Lan esperientzia: hautaketa-prozesu bakoitzean parte hartzeko eskatutakoaren gehigarria eta xedeari loturik dagoena, jarraian zehazten diren kontzeptuetan. Atal honetan gehienez 10 puntu izango dituzte.



Data Analytics aholkulari/arkitektoaren kasuan kontuan hartuko da: Big Data eta Datuen Analitika azpiegitura teknologiko eta lan-frameworkak dituzten proiektuetan parte hartu izana, Machine Learning eta Intelligentzia Artifiziala, Hadoop ekosisteman teknologiak integratzen jakitea: Hive, Hdfs, Map-Reduce, Kafka, Spark, Scala, Impala, in-Memory datu baseak, No-SQL, besteren artean.

J2EE arkitektoaren prozesuaren kasuan, J2EE arkitektura -aplikazioak eta -diseinuak garatzeko proiektuetan parte hartu izana hartuko da kontuan, honako hauek oinarri hartuta: Spring, DevOps, Integrazio jarraitua, etengabeko hedatzea, monitorizazioa (iturri-kodea ebaluatzea SonarQuberekin, etengabeko azterketa, JUnit, JMeter, Jenkinsekin automatizatzea, Edukiontzia, Docker, Kubernetes) eta metodologiak arinak.

Berrikuntza proiektuen kudeatzailearen prozesuaren kasuan, kontuan hartuko da berrikuntza, IKT eta kalitate eta segurtasun metodologiak proiektuen kudeaketa (ISO9001,27001,OHSAS 18001, ENS), ITIL eta berrikuntzako, europako eta estatuko proiektuetan parte hartu izana, I+G+b eremuko ekipoen lidergoa, ekintzailatza-ekimenetan izandako esperientzia eta eremu publikora hurbiltzea.

Negoziaren aholkulariaren prozesuaren kasuan, kontuan hartuko da negozio aholkularitza edo IKT aholkularitza eta Administrazio Publiaren eremuko aholkularitza proiektuetan parte hartu izana, gehienez ere 10 urte.

Konponbide/garapeneko teknikariaren prozesuaren kasuan, kontuan hartuko da metodologia arinetan, Spring arkitekturaren, interfazeen diseinuan, Fronten BootStrapekin, jQuery-rekin, GIS teknologiekin, Big Data eta BI teknologiekin duen esperientzia, besteak beste. IKTen inguruan gehienez 5 urteko esperientzia hartuko da kontuan.

Bezeroentzako teknikariaren prozesuaren kasuan, honako hauek hartuko dira kontuan: bezeroekiko harremana, IKT proiektuen kudeaketa, kalitate-kontrola, kostuak, epeak betetzea eta bezeroekiko gainerako konpromisoak eta udal eta eremu publiko foral funtzionaleko administrazio prozeduretan esperientzia, gehienez ere 5 urte hartuko dira kontuan.

GIS konponbideen teknikariaren prozesuan, tresna hauetako batekin edo gehiagorekin esperientzia izatea hartuko da kontuan: SDI/GIS (ESRI tresna suitea edo open source (Geonode, GeoNetwork, PostGIS, GeoTools, QGIS Server, MapServer, GeoServer)), QGIS, Datu Base Espazialak, (Oracle, PostGIS...), BD SQL, ETL tresnak eta GIS bistaratze teknologiekin esperientzia profesionala izatea.

Hautaketa-batzordeak urtebeteko iraupena baino gutxiagoko denbora epeak kontatu ahal izango ditu proportzionalki. Lanaldi partzialaren erregimeneko dedikazio denboraldiak daudenean, egiaz eskainitako dedikazio denborarekiko proportzionalki egingo da kontaktua.

- Prestakuntza osagarria, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskatutako titulazioaren gehigarria eta prozesu bakoitzaren xedearekin loturik dagoena, jarraian zehazten den bezala. Atal honetan 6 puntu izango ditu gehienez.

Data Analytics alholkulari/arkitektoaren prozesuaren kasuan kontuan hartuko dira esparru teknologikoko eta/edo metodologikoko masterrak edota ziurtagiriak izatea eta, bereziki, Big Data/Datuen Analitika eremuan.

Berrikuntza proiektuen kudeatzailearen prozesuaren kasuan, teknologia- eta/edo metodologia-arloko masterrak eta/edo ziurtagiriak hartuko dira kontuan, eta, bereziki, proiektuen kudeaketaren ziurtagiria (PMP, Agile, Scrum edo antzekoa) edo berrikuntza, besteak beste.

Negozio aholkulariaren eta Bezeroentzako teknikariaren prozesuaren kasuan, teknologia- eta/edo metodologia-esparruan, eta bereziki marketinean, teknologiaren komunikazioan, berrikuntzaren, eraldaketa digitalaren edo ingurune digitalen esparruan, masterrak eta/edo ziurtagiriak hartuko dira kontuan, besteak beste.

J2EE arkitektoaren, konponbide/garapeneko teknikariaren, Bezeroentzako teknikariaren eta GIS konponbideen teknikariaren kasuan, teknologia arloko masterrak eta/edo ziurtagiriak hartuko dira kontuan.

- Ingelesaren ezagutza, ziurtagiri ofizialaren bidez egiaztatua. Atal honetako puntuazio maximoa 4 puntu izango da.
 - o 4 puntu, C1 titulua edo ingeleseko baliokidea egiaztatzeagatik.
 - o 2 puntu, B2 titulua edo ingeleseko baliokidea egiaztatzeagatik.

Hautaketa-batzordeari dagokio esperientziaren ezaugarriak eta trebakuntza edukiak baloratzeko, postu bakoitzerako izan ditzakeen onuren arabera.

Merituak honela egiaztatuko dira:

- Dokumentazioaren aurkezpena 2. fasean egingo da. Prozesuan jarraitzen duten hautagaiek baloratzeko dituzten merituei dagozkien egiaztagiria ekarri beharko dituzte (jatorrizkoa eta fotokopia), aurrez aurkeztutako onartua izateko eskaeran eta lan esperientziaren inguruko erantzukizunezko adierazpen eremuan alegatuak izan behar dute, 3. oinarrian ezartzen den bezala, eta kontuan hartuko dira fase honetan.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak igorritako bitzita laboralaren txostena edo kontratuaren amaieraren data eta iraupen osoa egiaztatzen duen dokumentuaren bidez egiaztatuko da esperientzia profesionala. Dokumentu horri laneko kontratuaren fotokopia erantsi daiteke, betiere burututako lana jasotzen badu haren edukiak, edo enpresaren bestelako ziurtagiriren bat erantsi daiteke, hark maila profesionala eta burututako funtzioak jasotzen baditu.
- Prestakuntza osagarrien egiaztagiriek iraupena adierazi beharko dute, ordutan edo kredituetan, baita edukia ere, kurtsoaren izenburutik ondorioztatu ezin den kasuetan. Ez da kontuan hartuko iraupena agertzen ez den trebakuntza ikastaroen egiaztagiririk.
- Balorazioan ez dira kontuan hartuko alegatutako merituek, ez badira aski edo behar bezala egiaztatzen.



Azterketa bakoitzerako dei bakarra egingo zaie hautagaiei. Dei egindako pertsona ez bada azterketara aurkezten, automatikoki galduko du azterketa horretan eta hurrengoetan parte hartzeko eskubidea, eta, horrenbestez, hautaketa-prozesutik kanpo geratuko da.

Bederatzigarren baldintzan adierazitako baliabideetan argitaratuko da informazio guztia, eta gutxienez 72 ordu lehenago egingo dira probetara joateko deialdiak.

Azterketak egiteko denbora eta baliabideak egokituko dira desgaitasuna duten eta egokitzapena behar duten pertsonentzat, baldin eta onartuak izateko eskaera orrian eskatu eta justifikatu badute, eta hautaketa-batzordeak positiboki baloratu badu eskatutakoa ematea gainerako parte hartzaileen aukera berdinak izan ditzaten. Betiere horrek ez badu probaren edukia indargabetzen, eta ez badu eskatutako gaitasun maila murriztu edo kaltetzen.

Hautaketa-batzordeak, edozein unetan, behar bezala identifikatzeko eskatu ahal izango die hautagaiei, eta, horretarako, NAN edo, batzordearen iritziz hautagaiaren nortasuna aski egiaztatzen duen beste edozein dokumentu (pasaportea, gidabaimena, atzeritarren identifikazio zenbakia eta beste), eraman beharko dute azterketa bakoitzera. Ez badute hori egiten, kanpoan geldituko dira.

ZAZPIGARRENA. ALEGAZIOAK.

Interesa duten pertsonak alegazioak aurkeztu ahal izango dituzte behin-behineko emaitzak Izfe, SAREN web orrian argitaratu ondoren. Horretarako 3 laneguneko epea izango dute, argitaratu diren egunaren hurrengotik aurrera kontatuta.

Interesa duten pertsonak bederatzigarren baldintzan adierazitako baliabideetan argitaratutako alegazio orria bete beharko dute eta seleccion@oteic.com-era bidali horretarako jarritako epeetan.

Hautaketa-enpresak eta hautaketa-batzordeak erabakiko dituzte alegazioak.

ZORTZIGARRENA. LANEAN HASTEAN.

Hautaketa-prozesuak dituen fase guztietan lortutako puntuazioen baturak zehaztuko du behin betiko sailkapen ordena, baldin eta finkatutako irizpideen arabera gaingitu badira fase horiek.

Berdinketa gertatuz gero, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan ordena zehazteko:

1. 2. fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
2. 1. fasean puntuazio handiena lortu duenaren alde.
3. Zozketa bidez.

Aukeratuak suertatzen diren hautagaiak osasun azterketa egingo dute, hura nahitaezkoa eta baztertzaileria baita. Ondoren, bere kasuan, plantillan sartuko dira eta Elkarteko araudia beteko dute.

Eskatutako dokumentazioa ez badute aurkezten edo osasun azterketa egokia ez bada, kontratatzeko eskubide guztiak galduko ditu hautagaiak eta jarraian azaltzen den izangaien zerrendatik kanpo geldituko da.



Sei hilabeteko probaldia izango du kontratatze proposatutako pertsona bakoitzak. Hautagaiak ez badu probaldi hori gainditzen, kontratatze eskubide guztiak galduko ditu.

Dagokion hautaketa-prozesua gainditu eta eskainitako plazetan sartzen ez diren izangaiak izangaien zerrenda bateko kide izango dira, aurretik sozietatean sor litezkeen errelebo beharrei erantzuteko erabilgarria izango dena. Plantillan sartzea eskaintzen da, kontratazio mugagabea egiteko aukerarekin, une bakoitzean aplikatu beharreko legezko xedapenek horretarako aukerarik ematen badute.

Aukeratutako pertsona bati Izfe, SAn hasteko deia egitean, aukeratutako pertsona horrek uko egin ahal izango dio eskaintza zehatz horri. Kasu horretan, ulertuko da uko egitea behin betikoa dela, eta horrenbestez, uko egiten diela Izfe, SAn hasteko etorkizuneko deiei ere, deialdi honen xede esparruan.

Hautagai bakar batek ere ez badu lortzen oinarrietan aurreikusitako gutxieneko puntuazioa probetan, hautaketa-prozesua bete gabe utzi ahal izango da. Kasu horretan beste deialdi bat hasi ahal izango du Izfe, SAK.

BEDERATZIGARRENA. INFORMAZIOA ARGITARATZEA.

Oro har, deialdiari eta hautaketa-prozesuari dagozkion iragarkien komunikazioa, proba desberdinetarako deialdiak (gutxienez 72 ordu lehenago egingo da hori), emaitzen argitalpena, etabar, bide hauetatik emango dira:

- Web orrian: www.izfe.eus
- OTEIC Taldearen bulegoetan.

Lehen argitalpenaren aurretik interesaturik dauden pertsona bakoitzari, onartua izateko eskaera orrian adierazitako posta elektronikoko bidez, bere eskaerari izendatutako eta hautaketa-prozesuaren garapenean behar diren argitalpenetan identifikatuko dion kodea jakinaraziko zaio.

HAMARGARRENA. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

Publizitate printzipioak arautzen du hautaketa-prozesu hau, eta horrenbestez, prozesu honetan parte hartzeak esan nahi du hautagaiek onartu egiten dutela beren eskaera orrian Izfe, SAri (Gipuzkoako Foru Aldundia % 100 den merkataritza sozietate forala) eman dizkieten datu pertsonalen tratamendua, hautaketa-prozesuko emaitza partzialak eta behin betikoak hainbat hedabidetan argitaratu ahal izateko.

2016/679 Erregelamendua (EB), 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, datu pertsonalen tratamenduari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak xedaturikoaren arabera, hautaketa-prozesuko parte hartzaileei ondoko hau jakinarazten zaie:

- Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaeratik lortutako datu pertsonalak hautapen prozesuan parte hartzen duen hautagai bezala kudeatzeko soilik tratatuko dira, eta kontratazioaren kasuan, langile bakoitzaren espedientera erantsiko dira.
- Izfe, SA da tratamenduaz arduratzen den erakundea.
- Grupo OTEIC (Oteic Consulting Group, SA) izango da emandako datuen tratamenduaren karguduna.
- Informazio pertsonala Izfe, SAK pertsonala kontratatzeko hautaketa-prozesua deitzeko eta ebazteko bidezko interesaren arabera eskatuko eta tratatuko da. Informazioa ez emateak prozesuan parte hartzeri uko egiten zaiola esan nahi du.
- Eskaera orria sinatzeak esan nahi du eskatzaileak beharrezko informazioa baduela, eta bere datuak tratatzeko baimena ematen duela. Horrenbestez, berariaz onartzen du Izfe, SAK bere datuak jakinaraztea, oinarrietan jasotako baldintzen arabera argitaratuz.
- Behar diren argitalpenak egiteko, kode baten erabileraren bitartez hautagaiaren identitatea gordeko da eta lehen argitalpenaren aurretik interesaturik dauden pertsona bakoitzari jakinaraziko zaio onartua izateko eskaera orrian adierazitako posta elektronikoko bidez. Kode hori baliozkoa izango da hautaketa-prozesuaren garapenean lortutako puntuazioen eta emaitzen argitalpen guztietarako eta, kasua balitz, hautaketa-prozesu honen esparruan egin daitezkeen bestelako jakinarazpenetarako.
- Sarbide eskubidea erabili ahalko dute, eta, kasua balitz, zuzentzea, ezeztatzea edo aurkaratzea eskatu, legeak ezarritakoaren arabera, idatzizko jakinarazpen bat zuzenduz tratamenduaren arduradunari ondoko helbidera:
Izfe SA
Miramon pasealekua, 168
20014 Donostia San Sebastián
- Era berean, eskubide hauek erabil ditzake Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren aurrean.

Donostian, 2019ko urriaren 6an

I. ERANSKINA - LANPOSTUEN DESKRIBAPEN NAGUSIA.

- Data Analytics aholkularia/arkitektoa

Lanpostuaren misioa: datuen tratamenduan oinarritutako konponbideen aholkularitza, analisia, diseinua eta garapena.

- J2EE arkitektoa

Lanpostuaren misioa: Spring-en oinarritutako J2EE garapeneko arkitekturen diseinua, garapena eta euskarria.

- Berrikuntza proiektuen kudeatzailea

Lanpostuaren misioa: proiektuen aholkularitza, definizioa, eta kudeaketa eta berrikuntza teknologikorako metologiak. Teknologiaren zaintza. Izferen metodologia arinak eta proiektuen metologiak ezartzea, bai eta haiei lotutako tresnak ere.

- Negozio aholkularia

Lanpostuaren misioa: bezeroekin hitz egitea, aholkuak emateko, haien beharrak antzemateko eta irtenbideak proposatzeko, eta berrikuntza, eraldaketa digitala eta lan egiteko moduan aldaketa sustatzeko.

- Konponbide/garapeneko teknikaria

Lanpostuaren misioa: IKT eremuko proiektuak behar bezala garatzen direla bermatzea, eskatutako eskakizunak bete ditzaten, proiektuaren taldeko kide izanik, eta emaitzen, epeen, kalitatearen eta kostuaren gaineko erabakiak hartuz, erantzukizun-maila eta konplexutasun ezberdinetan.

- Bezeroentzako teknikaria

Lanpostuaren misioa: Gipuzkoako Administrazioaren eremuko bezeroekiko solaskidetza, beraien beharrei egokitutako IKT eremuko zerbitzuak eskaini eta zerbitzuen erabileran laguntza eta prestakuntza emateko.

- GIS konponbideen teknikaria

Lanpostuaren misioa: software tresnen eta kudeaketa aplikazioen diseinua, garapena eta euskarria, bereziki, GISenak.



II. ERANSKINA - HAUTAKETA-PROZESUETAKO FASEEN ETA GEHIENENKO PUNTUAZIOAK ETA GUTXIENENKO PUNTUAZIO IRIZPIDEEN LABURPENA.

Data Analytics Aholkularia/Arkitektoa, J2EE Arkitektoa, GIS konponbideen teknikaria eta Berrikuntza proiektuen kudeatzailea

FASEA	GEHIENENKO PUNTUAZIOA	GUTXIENENKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK
1. GAITASUNEN ANALISIA ETA EZAGUTZEN ANALISIA	40	Gutxieneko irizpidea: 10 handienen arteko puntuazioa
2. ELKARRIZKETA/K ETA ANALISI PERTSONALA ETA KONPETENTZIALA	40	20
3. MERITUEN BALORAZIOA	20	---
GUZTIRA (1+2+3)	100	---

Negoio aholkularia eta Bezeroentzako teknikaria

FASEA	GEHIENENKO PUNTUAZIOA	GUTXIENENKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK
1. GAITASUNEN ANALISIA ETA EZAGUTZEN ANALISIA	40	Gutxieneko irizpidea: 15 handienen arteko puntuazioa
2. ELKARRIZKETA/K ETA ANALISI PERTSONALA ETA KONPETENTZIALA	40	20
3. MERITUEN BALORAZIOA	20	---
GUZTIRA (1+2+3)	100	---

Konponbide/Garapeneko teknikaria

FASEA	GEHIENENKO PUNTUAZIOA	GUTXIENENKO PUNTUAZIO IRIZPIDEAK
1. GAITASUNEN ANALISIA ETA EZAGUTZEN ANALISIA	40	Gutxieneko irizpidea: 30 handienen arteko puntuazioa
2. ELKARRIZKETA/K ETA ANALISI PERTSONALA ETA KONPETENTZIALA	40	20
3. MERITUEN BALORAZIOA	20	---
GUZTIRA (1+2+3)	100	---



III. ERANSKINA - ONARTUA IZATEKO ESKAERA ORRIA.

Hautaketa-Prozesuen identifikazioa:

ADIERAZI "X" BATEKIN ZEIN HAUTAKETA-PROZESUTAN PARTE HARTU NAHI DUZUN:

- | | |
|--|---|
| <input type="checkbox"/> Data Analytics aholkularia/arkitektoa | <input type="checkbox"/> J2EE arkitektoa |
| <input type="checkbox"/> Berrikuntza proiektuen kudeatzailea | <input type="checkbox"/> Negozio aholkularia |
| <input type="checkbox"/> Konponbide/garapeneko teknikaria | <input type="checkbox"/> Bezeroentzako teknikaria |
| <input type="checkbox"/> GIS konponbideen teknikaria | |

Eskatzailea:

DEITURAK ETA IZENA:		NAN (hizkia barne)	
		JAIOTZE DATA	
HELBIDEA (kalea edo plaza, zenbakia eta solairua)	POSTA KODEA	BIZI ZAREN UDALERRIA	
		PROBINTZIA	
MUGIKORRA	TELEFONOA	E-MAILA	

ADIERAZI "X" BATEKIN ZEIN DOKUMENTAZIO AURKEZTEN DEN:

- Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, edo identifikazio dokumentu baliokidea.
- Curriculum Vitae eguneratua.
- Unibertsitate titulu ofizialaren fotokopia, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak izanaren egiaztatzea.
- IV. eranskinean eskuragarri dagoen lan esperientziaren inguruko erantzukizuneko Adierazpenaren Eredua.
- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrak igorritako bititza laboralaren txostena edo kontratuaren amaieraren data eta iraupen osoa egiaztatzen duen dokumentua. Dokumentu horri laneko kontratuaren fotokopia erantsi daiteke, betiere burututako lana jasotzen badu haren edukiak, edo enpresaren bestelako ziurtagiriaren bat erantsi daiteke, hark maila profesionala eta burututako funtzioak jasotzen baditu.
- C1 euskara mailaren ziurtagiriaren edo tituluaren fotokopia.
- Besterik: Zehaztu _____

Oharra: 2. fasean, onarpen-eskaeraren inprimakian jasotako datu guztiei dagokien jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko da, bai eta inprimakian alegatutako merezimenduak egiaztatzeko dokumentazioa ere (jatorrizkoa + fotokopia). Jatorrizkoaren eta kopiaren arteko elkarrekotasun faltak hautapen-prozesutik kanpo utzi ahal izango du.



UNIBERTSITATE TITULU OFIZIALA		
UNIBERTSITATEA	TITULUA	HURA LORTUTAKO URTEA

EUSKARA
<input type="checkbox"/> Eskatutako C1 euskara maila titulazioa egiaztatzen dut
<input type="checkbox"/> Eskatutako C1 euskara maila titulazioa EZ dut egiaztatzen
Tituluaren deskribapena (HABE, Hizkuntza eskakizuna, HEO edo homologagarria ...):

PRESTAKUNTZA OSAGARRIA
Bestelako unibertsitate ikasketak:
Doktoretza, master edo graduondoko ikasketa ofizialak:



Postuaren edukiari loturiko gaietan zentro ofizialek emandako prestakuntza ikastaroak eta mintegiak

IKASTAROA	IRAUPENA (Orduak)

INGELESEKO EZAGUTZA

(Adierazi zein maila duzun Europako A1, A2, B1, B2, C1 edo C2 mailetan oinarrituta eta egiaztatiririk duzun)

AHOZKOA	IDATZIZKOA	TEKNIKOA	ITZULPENA	EGIAZTAGIRIA

Aitortua duzu legez desgaitasuna duen pertsonaren izaera?

Desgaitasuna duen pertsonak: adierazi azterketak egiteko egokitzapen berezirik behar duzun.

Bai

Ez



Jakinazten zaizu Izfe, SAK egiazatu ahal izango duela hautagaiak hautaketa-prozesuan zehar aurkeztutako dokumentazioa eta emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango dituela egiazkoa ez den informazioa aurkeztu duten hautagaiak.

Era berean, horretarako emandako epean hautagaiak ez badu bere dokumentazioa aurkezten edo ez badu eskatutako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen, bere hautagaitzak ez du ondoriorik sortuko eta bere jarduera guztiak baliorik gabe geratuko dira.

Hautaketa-batzordeak ahalmena izango du suertatzen diren zalantza guztiak erabakitzeko eta aukeratze prozesua modu egokian bideratzeko beharrezko akordioak egiteko, oinarri hauetan aurreikusten ez den guztian.

Inprimaki hau sinatzean:

- (i) Aipaturiko deialdian eta hautaketa-prozesuetan onartua izateko eskatzen dut eta goian emandako datuak eta lan esperientziaren inguruko erantzukizuneko Adierazpenaren Ereduan jasotakoak egiak direla, eta bigarren baldintzan eskatutako baldintzak betetzen ditudala adierazten dut; eta
- (ii) Deialdi hau eta hautaketa-prozesu hau arautzen duten baldintzak ezagutzen eta onartzen ditudala adierazten dut.

_____n, 2019ko _____aren ____an.

Eskatzailearen sinadura: _____



IV ERANSKINA- LAN ESPERIENTZIAREN INGURUKO ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENAREN EREDUA

Lan esperientziaren inguruko erantzukizunezko adierazpena

..... Jaun/Andrea, NA zenbakia duena “Izfe SA” merkataritza elkarteko lan postuaren hautatze-prozesuaren esparruan, bigarren oinarriaren araberako baldintza baztertzailerik den lan esperientzia egiaztatzeko, eta, kasua balitz, merituei dagokion fasea baloratzeko eta seigarren oinarriaren arabera egiaztatuz, erantzukizunez adierazten du oinarrietan esanda bezala ondoko lan esperientzia duela.

LANPOSTUA	ENPRESA	KONTRATUAREN IRAUPENA	DEKAZIOREN PORTZENTAIA	SAILKAPEN PROFESIONALA	BURUTUTAKO FUNTZIOAK



DATA ANALYTICS AHOLKULARIA / ARKITEKTOAREN PROZESUAREN KASUAN SOILIK BETETZEKO

Datuen analitika proiektuetan parte hartzea:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, emaitza, epea, etab.)

Big Data/ Data Analytics azpiegitura teknologikoetan esperientzia:

(Teknologia eta proiektuaren deskribapena, erakunde edo bezeroa, rola, epea, etab.)

Datuen analitika taldeen lidergoa:

(Entitatearen deskribapena, edukiak, taldearen tamaina, epea, etab.)

_____n, 2019ko _____aren ____an.

Eskatzailearen sinadura: _____



J2EE ARKITEKTOAREN PROZESUAREN KASUAN SOILIK BETETZEKO

J2EE arkitekturak diseinatzeko proiektuetan parte hartzea:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, emaitza, epea, metodologia, etab.)

J2EE arkitekturak garatzeko proiektuak:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, emaitza, epea, metodologia, etab.)

Bestelako programazio hizkuntzak erabiliz (J2EE ez direnak), diseinu edo garatze proiektuak:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, emaitza, epea, metodologia, etab.)

Bestelako IKT proiektuetan parte hartzea:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, emaitza, epea, metodologia, etab.)

_____n, 2019ko _____aren ____an.

Eskatzailearen sinadura: _____



BERRIKUNTZA PROIEKTUEN KUDEATZAILEAREN PROZESUAREN KASUAN SOILIK BETETZEKO

Berrikuntza proiektuetan parte hartzea:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, teknologia, rola, emaitza, epea, metodologia, etab.)

I+G+b eremuko ekipoen lidergoa:

(Entitatearen deskribapena, edukiak, taldearen tamaina, epea, metodologia, etab.)

Ekintzaitza-ekimenetan esperientzia:

(Deskribapena, rola, emaitza, epea, etab.)

Administrazio Publikoarekin esperientzia zehatza:

(Erakundea, harremanaren eremu funtzionala, rola, epea, metodologia, etab.)



Bestelako IKT proiektuetan parte hartzea:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, emaitza, epea, metodologia, etab.)

Kalitate eta segurtasun metologiak ezartzen esperientzia:

(Arauaen deskribapena, rola, emaitza, epea, etab.)

_____n, 2019ko _____aren ____an.

Eskatzailearen sinadura: _____



NEGOZIO ALHOKULARIAREN PROZESUAREN KASUAN SOILIK BETETZEKO

Negozio aholkularitza proiektuak:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, emaitza, epea, etab.)

IKT eremuan eta transformazio digitaleko proiektuetan esperientzia:

(Proiektuaren deskribapena, entitate edo bezeroa, rola, epea, etab.)

Bestelako esperientziak bezeroekin:

(Bezeroaren eremuaren deskribapena, harremana, rola, epea, etab.)

_____n, 2019ko _____aren ____an.

Eskatzailearen sinadura: _____



KONPONBIDE / GARAPENeko TEKNIKARIAREN PROZESUAREN KASUAN SOILIK BETETZEKO

Softwarea garatzeko IKT proiektuak:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, erabilitako teknologia, proiektua eta taldearen tamaiana, epea, etab.)

Bestelako IKT proiektuetan parte hartzea:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, erabilitako teknologia, proiektua eta taldearen tamaiana, epea, etab.)

Bestelako esperientzia profesionalak:

(Eremuaren deskribapena, rola, epea, etab.)

_____n, 2019ko _____aren _____an.

Eskatzailearen sinadura: _____



BEZEROENTZAKO TEKNIKARIAREN PROZESUAREN KASUAN SOILIK BETETZEKO

Bezeroekin esperientzia:

(Bezeroekin lan egindako eremuaren deskribapena, harremana, rola, epea, etab.)

Administrazio Publikoarekin esperientzia zehatza:

(Erakundea, harremanaren eremu funtzionala, rola, epea, etab.)

IKT eremuan esperientzia:

(Proiektuen deskribapena, entitate edo bezeroa, rola, epea, etab.)

Erabiltzaileei laguntza eskaintzen eta haiek trebatzen esperientzia:

(Laguntza edo prestakuntza eremuaren deskribapena, edukia, entitatea, epea, etab.)

_____n, 2019ko _____ aren ____an.

Eskatzailearen sinadura: _____



GIS KONPONBIDEEN TEKNIKARIAREN PROZESUAREN KASUAN SOILIK BETETZEKO

GIS teknologiarekin proiektuak:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, erabilitako teknologia eta tresnak, proiektua eta taldearen tamaina, epea, etab.)

Softwarea garatzeko IKT proiektuak:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, erabilitako teknologia, proiektua eta taldearen tamaina, epea, etab.)

Bestelako IKT proiektuetan parte hartzea:

(Proiektuaren eta haren eremuaren deskribapena, rola, erabilitako teknologia, proiektua eta taldearen tamaiana, epea, etab.)

_____n, 2019ko _____aren _____an.

Eskatzailearen sinadura: _____